

DOKTOREGO AURREKO LAGUNTZEN DEIALDIA, HEZKUNTZA, KULTURA ETA KIROL MINISTERIOARENA: FPU PROGRAMA 2017

Laguntzen ezaugarriak:

MCCDk diru laguntzen deialdia argitaratu du, edozein arlo zientifikotako doktorego programetan ikertzaileak prestatzeko. Helburua da onuradunei bidea erraztea etorkizunean unibertsitateko irakasle izateko goi mailako hezkuntzako eta ikerketa zientifikoko Espainiako sisteman.

850 laguntza atera dira. Horietatik hamazazpi % 33ko ezgaitasuna edo handiagoa duten ikertzaileentzat gordeko dira.

Kontratuen ezaugarriak:

Doktorego aurreko kontratuek gehienez 4 urte iraungo dute (6 urte, ezgaitasuna duten onuradunen kasuan) eta onuradunen eta UPV/EHUren artean egingo dira, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 21. artikuluari jarraituz.

Kontratuak 2018/09/01etik 2018/11/01era bitartean jarriko dira indarrean. Onuradunek hilean 1.173 euro gordin jasoko dituzte, guztira 12 ordainketa eta aparteko bi ordainsari.

Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:

Lehen fasea:

Lehen fasean, laguntzako gehienez hiru hautagai aukeratuko dira: lehiatzen diren ANEP arloaren barruan batez besteko nota haztatu hoberena dutenak.

GARRANTZITSUA: jarraian zehazten diren baldintzak eskaerak aurkezteko epea ixteko datan bete beharko dira.

Baldintza akademikoak:

- a. Doktore titulurik ez izatea.
- b. UPV/EHUren doktorego programa batean matrikulatua egotea 2017/2018 ikasturtean.
- c. Horren ezean, master tituluaren jabe izatea edo 2017/2018 ikasturtean matrikulatuta egotea 2018/2019 ikasturtean doktorego programa baterako sarbidea emango duen master batean.
- d. **ATZERRIKO ESKATZAILEAK BAKARRIK:** B2 mailako ziurtagiri baten jabe izatea (hizkuntza batekoa edo bestekoa, doktoregoa zein hizkuntzatan egin nahi duen).

Ikasketen amaiera datari buruzkoak:

MUGAEGUNA	IKASKETA MOTA
2014/01/01	Lizentziaduna, ingeniaria, arkitektoa edo horien parekoa EEera egokitu gabeko unibertsitate sistemetan. (*Bi urte gehiago ezgaitasuna duten pertsonentzat)
2013/01/01	Diplomaduna, ingeniari teknikoa, arkitekto teknikoa edo horien parekoa EEera egokitu gabeko unibertsitate sistemetan. (*Bi urte gehiago ezgaitasuna duten pertsonentzat)
2013/01/01	180 kredituko graduiko ikasketak EEeren eremuan. (*Bi urte gehiago ezgaitasuna duten pertsonentzat)
2014/01/01	240 kredituko graduiko ikasketak EEeren eremuan. (*Bi urte gehiago ezgaitasuna duten pertsonentzat)
2010/01/01	Aurreko ataletan adierazitako ikasketak egiten ari zirelarik 2010/01/01etik 2014/01/01era bitartean 6 urtetik beherako seme-alabak zaintzen egon direnak.

Espediente akademikoko batezbesteko gutxieneko notari buruzkoak:

Irakurri 8. eta 9. artikulua, titulazio maila bakoitzerako eta ezagutza adar bakoitzerako batezbesteko gutxieneko nota ikusteko, eta jakiteko nola kalkulatu den.

Zalantzak edo galderak notamedia.uni@mecd.es helbidera bidali ahalko dira.

Bigarren fasea:

Hautagaiek dokumentazioa aurkezteko epea lehen hautaketa fasearen behin betiko ebazpenean finkatuko da.

Tesi zuzendariak bete beharreko baldintzak:

- Eskatzaileek tesi zuzendari bana eduki beharko dute.
- Zuzendariak kontratua izan beharko dute UPV/EHUrekin eskaera aurkezten denetik laguntzak dirauen 4 urteak amaitu arte.
- Zuzendari bakoitzak eskaera bakarra bermatu ahal izango du. Baldintza hori bete ezean, zuzendari horri dagozkion eskaera guztiak baztertuko dira.

GARRANTZITSUA: proposatutako tesi zuzendariak UPV/EHUko doktorego programa bateko irakasleak izan beharko dira, eta Master eta Doktorego Eskolak halakotzat aitortuak. Eskakizun hori bete ezean, ezin izango da egin UPV/EHUren eta onuradunaren arteko kontratua.

Eskaerak aurkezteko epea:

2017ko abenduaren 29ko 14:00etara arte.

Eskaerak aurkezteko era:

Eskatzailea <https://sede.educacion.gob.es> helbidera joan, "acceso al servicio online" botoia sakatu, eta bertan eskuratuko duen formularioa bete beharko du. Behin eskaera baieztatu ondoren, bide telematikoa bitartez erregistratu beharko du. Horretarako, DNI-e agiria, administrazio publikoek onartutako ziurtagiri elektronikoa edo hitzartutako pasahitzak erabiliko dira (sinadura elektronikorik ez duten eskatzaileei erregistratzean emango zaizkie pasahitzok).

Aurkeztu beharreko dokumentuak:

LEHEN FASEA	BIGARREN FASEA
a. Eskaera egiteko formularioa b. Ziurtagiri akademikoa	a. Doktorego programako matrikularen edo onarpenaren gordekina b. Eskatzailearen CVa c. Tesi zuzendariaren CVa d. Ikertalde hartzailearen historia zientifikoa e. Prestakuntza proiektu eta doktore tesiko memoria

Kontsultak egiteko kontaktua:

- Deialdiari buruzko zalantzak: solicitantes.fpu@mecd.es
- Batez-besteko notaren kalkuluari buruzko zalantzak: notamedia.uni@mecd.es

UPV/EHUko izapidea:

Lehen fase honetan **ez** da beharrezkoa izango Ikerketaren arloko errektoreordeak eskaera balidatzea atxikipen ikastegiaren legezko ordezkari gisa.

Informazio gehiago:

<https://www.mecd.gob.es/servicios-al-ciudadano-mecd/catalogo/general/educacion/998758/ficha/998758-2017.html>